

Pommelier

Joxean AGIRRE

A dinean gora joan ahala, badago bizitzan zehar ezagutu ditugun gazte batzuekiko mirespen sentimendu bat harrotasunarekin ere nahasten dena. Adibide bat jartzeko: urtebete eman nuen irakaskuntzan eta Juanito San Martinen seme bat izan nuen ikasleen artean, Unai, nik ezagutu dudana ikaslerik despistatuena, etxetik ikastolara bidean dena galtzen baitzuen, etxeko lanak eta liburuak barne. Baina barruan artista bat gordetzen zuela sumatzen zitzaion eta beti defendatu nuen.

Urteak joan eta sariak pilatzen hasi zen arte plastikoetan, eta 2002an Espainiako Sari Nazionala eman zioten Grabatuan. Harrotasuna sentitu nuen.

Aipamenak bere anaia gazteagoa, Oier, ekarri dit gogora. Asteburuak Jaizkibelen

indusketak egiten ematen zituzten aitarekin, eta astelehen goizetan bere ikas-mahaiaren gainera igo eta sekulako abenturak kontatzen zituen. Egun batean ura edateko erabiltzen ziren kantxil edo potin haietako baten muturra erakutsi zien ikaskideei, antzinako gizonaren pitilin fosilizatua aurkitu zutela esan zien, eta sinistu egiten zioten, noski.

Harrotasun hori muturreraino joaten da gure seme-alabek balentriaren bat egiten duten bakoitzean. Orain hiru bat hila-bete alaba ikusi nuen Tabakaleran Galder Izagirrerekin, bakoitza bere bateriarekin duoak egiten, eta egoa puztuta ibili nintzen pare bat egunetan.

Nik ez nuen harreman berezirik izan Haritz Rodriguezekin. Elkarrekin lan egin genuen, eta hori ez da gutxi. Eta harridu-

rarekin jarraitzen nituen berari buruzko berriak, orain gutxi American Cider Association delakoak Pommelier titulua eman diola jakin genuen arte. Harrigarria da izendapena, munduan titulu hori dararmatenak 122 bakarrik direla jakinik. Hain bitxia iruditzen zait Haritzen curriculum-a, non norbaitek familiartekoren bat Zubietan jokatzeko hasi dela eta Sansen bukatu duela esaten didanean, ibilbide guztiz arrunta iruditzen zaidan, nahiz eta errentagarritasun aldetik interesgarriagoa izan daitekeen.

Haritzenak poztu egin nau, eta bi aste barru Zapiainera urtero egiten dugun bisitan basoa altxatzen dudanean (oraindik basoaren aldekoak baikara), isilka bada ere, “Hi haiz, hi” ahapeka esanez egingo dut topa bere alde. •

Zerrendak

Maddi Aiestaran
IPARRAGIRRE

G ure gurasoen etxean, egunkari, aldizkari, paper zatietan egiten zen erosketetako zerrenda lehen. Sukaldeko egurrezko atearen atzean arbel zuri bat zintzilikatu genuen gero, eta txoko bat izendatu genuen “marrazkirik egin gabe mantendu beharreko txoko”. “Erosketak” jartzen du oraindik, zuriunearen gainean. Dena den, azken aldian, erosketak egitera doanak telefono mugikorreko “oharretan” apuntatzen du erosi beharrekoen zerrenda, edo argazkia ateratzen dio arbelekoari, eta hari erreparatzen, supermerkatu joandakoan.

Umeak ginenean, supermerkatuko karrotxoaren barruan eserazten gintuzten gurasoek. Bi oinak zintzilik, ipurdirik

mugitu ezinda zeharkatzen genituen korridoreak, burua ezker-eskuin. Eta apaletako zera koloretsuen deigarritasunak kasketarik piztu ez zezan, lantxo bat izaten genuen: errotulagailu fosforito batekin markatu behar izaten genituen jada karrotxora eramandako produktuak. Xanpua, garbantzuak, arroza, tomatea, jogurtak, esnea... hitzak ezabatu eta ezabatu aritzen ginen, zerrendan erosi beharrekoak geratzen ez zen arte. Orduan, gustura egiten genuen garrasi, papera airean dantzatzuz, “kitto!”.

Aspaldiko zeraren nostalgiaz edo premiaz edo gogoramenez, etxeko egunkari, aldizkari, paper zatietan zerrendak egiteko joera barru-barruan sumatzen dut gaur nik. Erosi beharrekoak aparte,

egin beharrekoak apuntatzen ditut astero-egunero-goizero etxean zehar topatutako paper zati baliozkoetan, errotulagailu fosforitoz edo boligrafo gastatuz. Izango da neure burua engainatzeko modu eskas bat ziurrenik, baina maite dut sentsazioa: ezabatzea eta ezabatzea hitzak zerrendatik, baretzea sabelaldeko ez-dakit-zer betetako eginbehar bakoitzeko, pentsatzea super egun produktiboa ari naizela izaten, eta, umetan supermerkatuko karrotxoaren barruan nola, ezabatutakoan zerrendako azken-azken hitza, sentitzea kitto, bukatu direla lantxoak eta denbora librearen tarte delako.

Batzuetan ondo dago norberak inbentatzea norbera pixka bat pozteko norbere moduak. •